5. zk.
2000

iDe

Editoriala

Aldizkari Berri-Emailea
Nafarroako Eskola Kontseilua

HEZKUNTZA-SISTEMAREN KALITATEA ETA EBALUAZIOA

Kalitate eta ebaluazio hitzek azken garaietan erabilera-hedapen bikaina izan dute eta, hori gertatzen denean, pentsatu behar da ezen erabilera horrek hitzaldian "errentagarritasun" handia sorrarazten duela eta bakoitzak horri gehien komeni zaion esangura emateko joera duela.

Nire ustez, beharrezkoa da, bada, oso nobleak diren hitzon esanguran desnaturalizaziorik gerta ez dadin adi egotea. Hortaz, kontzeptualizazio-ahaleginak egin behar ditugu haiek erabiltzen ditugunean zertaz ari garen jakiteko.

Egungo hezkuntza-sistemaren eremuan, kalitatea eta ebaluazioan HSAGOL delakoaren IV. titulura bilduta daude. Berau irakaskuntzaren kalitateaz ari da. Ebaluazioa "irakaskuntzaren kalitatea eta hobekuntza ahalbidetzen dituen faktore multzoan" sartuta ageri da (55. artikulua).

Ibarzabal jaunarekin ados nago. Izan ere, kalitateaz mintzatzea baino hobea da hobekuntzaz hitz egitea. Haren iritzia buletin honetan (3. zk.) ageri da. Harekin bat nator. Egin-eginean, kalitatea produktu bati dagokiola dirudi eta, ildo horretatik, uler daiteke ezen kalitate horren lorpena hobetu beharreko gauzakia kanpoko estandar batzuetara egokituz lor daitekeen hobekuntza-helburua dela eta, kalitatea lortu ostean, gauzaki horrentzako "kalitate-zigilua" lortua dela eta, horren ondorioz, helburua betea dela.

Hobekuntza, aldiz, prozesu bati dagokio, eta, hortaz, etengabe gainditu beharreko lan bati. Logikoa denez, horrek helburu puntual edo partzialak ditu. Baina, funtsean, beti egon behar izaten du zabalik eta heziketa-ebaluazioan bermatuta. Ez da "kalitate-ziurtapena" izan behar azken erreferente bezala, baizik eta ikastegi bakoitzak bere erakunde-plangintzari buruzko agirietan zehaztu behar duen eredua edo erreferentzia egokia baizik.

Ari naizen prozesu horrek plangintza, hausnarketa eta balorazioa, erabakiak hartzea eta metaebaluazioa (prozesuarena berarena) etengabe elikatzen doan informazioa behar du. Ebaluazioa da informazio hori eman behar duena, eta informazio hori arauz, zorroztasunez eta era objektiboan eman behar du.

HSAGOL eta LOPEGCE legeek hezkuntza-sistemaren barruan zenbait ebaluazio-eremu ezarri dituzte, baina hezkuntza-sistemaren ebaluazio orokorra ukitzen duena kontutan hartzea interesatzen zait, eta are interesatzenago zait ikastegien ebaluazioari dagokiona ardatz izatea.

Hezkuntza-sistemaren ebaluazio orokorrari begira, aipatutako legeek hori Kalitaterako eta Ebaluaziorako Nazio Erakundeari (INCE delakoari) eskatu diote.

Ebaluazio horrek, beraren izenak adierazten duen bezala, ez ditu helburu bezala hezkuntza-zentroak, eta, hortaz, gelen errealitatetik urrun samar dagoena irudi dezake; hala ere, nire ustez, erabaki batzuk hartzeko kanpoko erreferente bezala oso baliozkoa izan daiteke-en informazioa dakar, bidezko eran interpretatzen bada eta behar bezala frogatzen bada.

Gelaren errealitatetik hurbilago dago ikastegien ebaluazioa, berau egiteaz arduratzen diren agenteengatik bakarrik bada ere.

LOPEGCE legeak, eremu honetan, kanpoko ebaluazioa eta barruko ebaluazioa bereizi ditu eta, oso irizpide onez, uste du ezen biok elkarren osagarriak direla, hau da, kanpoko ebaluazioak, hezkuntza-ikuskapenak eginak, bere ondorioetarako barruko ebaluazioko prozesua kontutan hartu beharko duela eta, alderantziz, prozesu horrek, ikuskapenaren aholkularitza izanen duen ikastegiko organok burutuko dutenak, kanpoko ebaluazioaren emaitzak kontutan hartu beharko dituela.

Horrek guztiak, horrela esanda, nahaspila txikia eman dezake eta bere benetako zentzua eta beharrezko koherentzia hartu behar du, baldin eta Hezkuntza Administrazioak pieza ezberdinak egokitzen diren marko bat eman behar duela eta geletan egunero garatzen den irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren hobekuntzaren bitartez sistemaren hobekuntza dakarten ebaluazio-prozesuok bultzatu behar dituela pentsatzen badugu.

eskolara

Nire aburuz, ezein ebaluaziok ez du zentzurik hezkuntzan, aldaketari begirakoa ez bada. Ezinezkoa da ikusi ditugunen itxurako ebaluazio-txosten batean pentsatzea, ez bagaramatza ebaluatu gura izan den horretan zerbait aldatzera edo, hala denean, bikaintasun mailak iristen dituzten alderdiak esplizituki sendotzera.

Hori horrela ulertuta, hain zuzen ere, ebaluazioari begira dugun erreparorik garrantzitsuenetako bat saihestuko dugu, haietako askok duten izaera burokratikoa alegia. Haiek dagokien txostena egitea dute amaiera, zoritxarrez, eta ez dute hezkuntza-praktikarako ondoriorik.

Beste alde batetik, ebaluazioa, bai kanpokoa bai barrukoa, eskaintzen dugun zerbitzuaz egin behar dugun arauzko baloraziotzat hartzen badugu (berau erabiltzaileen asetasunaren edo asetasunik ezaren mailan eta helburuak gizarte errealitatera egokitzeaz gain proposatu diren helburuak lortzeko mailan neur dezakegu), zerbitzu hori eta lanbide praktika hobetzeko, nire ustez, ebaluazioari begira batzuetan gertatzen den halako errai-arbuio bat gainditukо dugu. Ebaluazioa, arbuio hori gertatuz gero, ia mehatxutzat hartua da.

Bukatzeko, uste dut ezen beharrezkoa dela lerro batzuk ikastegien barruko ebaluaziorako ematea.

Ikus dezakegunez, kalitate kontzeptua eredu batzuekin (ISO delakoarekin, EFQM delakoarekin Hobekuntza-planekin eta abarrekin) lotuta dago. Eta horrek batzuei honakoa pentsarazten ahal dielakoa dut (nahiago nuke hori horrela izanen ez balitz): ezen "berriro paperak egin behar direla", "beste kontu bat asmatu dela"... eta, are, horrek ikastegien arteko elkarlehia edo ikastegien katalogazioa ekar dezakeela... Ezin gara horrelako ideietan erori eta etorkizunean nahi diren emaitzak eman behar dizkigun ildo horretan lan egiten hasi behar dugu. Horretarako, ezinbestekoa da azken helburua zein den argi eduki eta osagarria zein den jakitea.

Funtsean nik honakoa esanen nuke:

- Ezen ebaluazioak hezkuntza-sistemak gizarteari eskaini beharreko lorpenen hobekuntzaren bitartez kalitate maila gero eta altuagoak lortzeko balio izan behar duela.

- Ezen hobekuntza horrek, gelan garatzen diren irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak erreferente nagusi eta, beharbada, azken erreferente izan behar duena, Hezkuntza Administrazioaren erabaki egokietarako bultzatu behar dela, eta hezitzaileen erabakietarako (klaustroenetarako irakas-taldearenetarako...). erabaki horiek bai ikastegiak eskaintzen duen zerbitzuaren bai haren lanbide jardunaren hobekuntzarako marko batean hartuak dira.

- Ezen ebaluazioak kanpoko erreferentzi elementuak izan behar dituela, baina, ikastegi bakoitzak, bere testuingurua kontutan harturik, beraren eredua edo berak lortu gura duen erreferentzia egokia zein den argi zehazten ez badu, kanpoko erreferentzi elementuok gutxitarako balio izanen dutela. Beste era batera esanda, erakunde-plangintzari buruzko agiriak (PEC, PCE...) ezin dira agiri burokratizatuak izan: aitzitik, ikastegiaren errealitatea islatu behar dute eta ebaluazioaren eta aldaketaren eragileak izan behar dute.

- Ezen Hezkuntza Administrazioak ebaluazio-prozesu guztiak planifikatu eta bultzatu behar dituela, ezinbesteko koherentzia lortu eta, gainera, ikastegiek behar duten aholkularitza, prestakuntza eta euskarri teknikoa ematekoak, beti haien autonomia errespetatuz.

- Ezen hitz-jario handiek edo metodologiek izutu behar ez gaituztela. Oso erraza da: ikastegi bakoitzak bere puntu indartsuak eta bere puntu ahulak identifikatu behar ditu lehenengoak sendotzeko eta, progresiboki, besteak hobetuz joateko, zertarako-eta gizarteari zerbitzu hobea eskaintzeko eta lanbide jardun gero eta motibatzaile eta atsegingarriagoa iristeko.

Antonio Jaurrieta Ezquerro

Ikasgela Gaia

HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTEGIETAKO KALITATEA

Oro har, Ikastegi Espezifikoak gizarte osoarentzat oso ezezagunak dira hezkuntza-sistemaren eremuan. Izan ere, ez dakigu nolako ikasleak hartzen dituzten, zein adinetako ikasleak hartzen dituzten, zein zerbitzu eskaintzen dituzten, zein profesionalek egiten dieten jaramon, zeinen menpean dauden, nola antolatzen diren, zein den beraien ordutegia, zein elkargoko organo eta gobernu-organo dituzten...; zein curriculum-alderdi hartzen dituzten kontutan: lortu gura dituzten helburu orokorrak, ebaluaziorako irizpideak, sistemak, erabiltzen den metodologia eta edukiak antolatzeak ardatz dituen eremuak, egiten dien jarduera osagarriak, kontutan hartuta dauden hezkuntza etapak eta zikloak, ikastegiotarako sarbidea eta abar luzea.

Orain ez diegu gai eta galdera guztiei erantzunik eman behar. Hala ere, beharrezkoa da "Torre Monreal" HEZKUNTZA BEREZIko Herri Ikastegiari begirako alderdi garrantzitsu batzuk (laburki) azaltzeko aukera hau aprobetxatzea. Eta, gure ustez, hori egiten hasteko erarik onena HEZKUNTZA BEREZI terminoa jendaurrean eta letra larriz nabarmentzea da. Izan ere, zeren eta horrezaz harro egon eta hori jendaurrean ozenki esateko unea heldu da; gure ikasleei KALITATEzko HEZKUNTZA-erantzuna emateko profesionalok oro egunero egiten saiatzen garen lan zail-zail baina apartekoa aintzatesteko eta laguntzeko unea heldu da; GUZTIOI eskolaratutako ikasleen duintasunarengatik ikastegion irudia duindu eta hobetzen laguntzeko unea heldu zaigu; eta unea heldu da gu apur bat hobeto ezagut gaitzaten ere-

Era berean, HEZKUNTZAZKOA terminoa letra larriz nabarmendu gura dugu. Hori funtsezkoa da. Izan ere, gure Ikastegian, inguru guztiak HEZKUNTZAZKOtzat hartuta daude (janlekuak, patioak, komunak eta abar barnean sartuta) eta eskola-une guztietan ikasleen garapen, ikaskuntza eta estimulaziorik handiena lortzeko baldintzak gerta daitezen diseinatu, antolatu eta programatuta daude. Ikasleen garapena, ikaskuntza eta estimulazioa lortzea da egunero hobetzen saiatzen garen helburuetako bat.

Hezkuntza-errealitate honi buruzko ideia emateko eta ari garena apur bat gehiago deskribatzeko eta zehazteko honakoa esanen dugu:

Ezen garapen-maila, adin, eboluzio-erritmo, burujabetasun maila, laguntza-beharrizan eta aurrerapen- eta gizarterapen-igurikapen oso ezberdinak agertzen dituzten ikasle taldeak ditugula. Errealitate horrek zehazten duenez, ikasle bakoitzari hezkuntza-etapetan erantzun egokia emateko curriculum-egokitzapen eta heziketabide ezberdinak diseinatu behar ditugu. Etapa horiek honakook dira: haurrena (3-6 urte), oinarrizkoa (6-16 urte) eta beharrezkoaren ostekoa (16-19 urte).

Gure planteamendu pedagogikoa oinarrizko gaitasun guztiak ahalik eta gehien gararazi gura dituen irakaskuntza global eta arlo anitzekoan oinarrituta dago. Gaitasun horiek honakook dira: ezagutzezkoak, eragileak, pertsonarteko harremanetarakoak, gizarteratzekoak eta norberaren orekarakoak.

Curriculum-proiektuan garrantzi berezia ematen diegunak honakook dira: gizarte motako edukiak eta ikaskuntzak, komunikaziokoak eta norberaren autonomiakoak, berauek zehaztuko baitituzte jarduera eta inguru ireki eta normalizatuagoetako gizarteraketarako eta partaidetzarako benetako ahalbideak; nork bere portaera eta oreka kontrolatzeko alderdiak, berauek lehentasunezkoak baitira gizartean bizitzeko eta besteekiko elkarbizitza egokia lortzeko; "akademi" prestakuntzako edukiak, lor ditzaketen tresna-eskurapenak oso garrantzitsuak baitira haien bizitzarako.

Gainera, azken Hezkuntza-etapan (16-19 urte), helduarora pasatzekoan, lan-zentroan eta okupazionalean integratzea eta ahalik eta autonomia eta burujabetasun handienaz bizitzea eta testuinguru horretako gizarteraketa norberaren integrazioa lortzeko prestakuntza ona hartu gura da.

Jarduerak gure ikasleen beharrizanak eta curriculum-garapeneko maila gogoan izanik antolatu behar ditugu, ikaskuntza esanguratsuak garatzeko ahalbidea une oro eskaintzeko. Haien egungo eta etorkizuneko bizitzarako baliagarriak eta funtzionalak diren ikasketak hautatu behar ditugu, haiek moldatuko diren inguruneetan burutu behar dituztenak bereziki, egiten ez badituzte haien ordez norbaitek egin beharko dituenak. Adin kronologikoa kontutan hartu behar dugu edozein jarduera mota planteatzerakoan, materialak aukeratzerakoan eta harreman-eran.

Ikuspegi metodologikotik, ahaleginak egiten ditugu gure ikasleak etengabe baliozko senti daitezen. Horretarako, egiten dituzten lanak beraien ahalbideetara doituta daude, arrakastan eta ahaleginetan oinarrituta daude, eta, errazak izanik ere erantzun eta balorazio positiboa dute, haien ahalbideetako konfiantza eskualdatuz. Ikasleek egin beharreko jarduerei begira erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko aukera dute. Hezkuntza-testuinguru argia, ordenatua eta aurretik esan daitekeena eskaintzen da, haiek aurreratu eta ulertzen ahal duten jarduera-ordutegiarekikoa. Horrek ikasteko prozesua erraztu, autokontrola hobetu eta autonomia ahalbidetzen du. Eguneroko bizitzako arazo praktikoan konpontzeko erabakiak hartu behar diren egoerak bultzatzen dira. Ikasleek arazook konpontzeko estrategiak ikasten dituzte.

Irakaskuntzaren Etapa eta Ziklokako antolakuntza malgua da. Taldeak txikiak dira: gelako 4 edo 5na ikaslekoa.

Gune fisikoa guztiz iristerraza da, oztopo fisikorik ez ezagutzezkorik ez baitago. Eskolako altzariak eta materiala ikasleen beharrizanetara guztiz egokituta daude.

Honenbestez, "TORRE MONREAL" HEZKUNTZA BEREZIko Ikastegia neurriren batean ezagunagoa izaten hastea espero dugu.

Tutera, 2000ko martxoaren hogeita hamarra.

IKASTEGIKO ZUZENDARITZA-TALDEA

"Torre Monreal" Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoa

Lizarrako Aiegiko Mater Dei ikastetxea

Historia laburra

Duela 35 urte, italiar apaiza zen *Luis Orione jaun*ak ongia mundu osotik eraman eta burutzeko asmo bakarrarekin sortutako *Karitateko Serora Misiolari Txikien Kongregazio*ko erlijio talde bat Lizarratik oso hurbileko Aiegi herrian finkatu zen, haren sortzailearen helburuaz, ongia egitekoaz.

Oso laster, seroron ametsa egia bihurtuz joan zen, eta, handik gutxira, *"Mater Dei" Ikastetxea* sortu zen, irakaskuntzarakoa. Bertan lekua eman zaie beti gizarte, ekonomi eta erlijio maila orotako neska-mutilei, *Luis Orione Dohatsu*aren nahia errealitate eginez: beharrik handiena dutenengana heltzea.

Urte askotan, OHOk iraun zuen urteetan, 3-14na urteko ehunka ikaslek gizarteak orduan agertzen zituen beharrizanekin bat zetorren erlijio, giza eta akademi heziketa hartzeko aukera izan zuten.

Hezkuntza-errealitatea bilakatuz joan da eta *Ikastetxea* planteamendu pedagogiko berrietara egokitu da. Beti kontutan hartu ditu Administrazioak finkatutako gidalerroak, oreka bilatu du eta ikasleen prestakuntza izan du helburu bakarra.

Eta HSAGOL legea heldu da eta DBH delakoa eta administrazio-baldintzak ezarri dira. Berriro ere, "Mater Dei"k erakutsi du ezen aldaketetarako prestatuta dagoela. *"MATER DEI-PUY-ANDERAZ partzuergo"* sortzeko eta gero ibiltzeko prozesua bultzatu eta bertan parte hartu du. Partzuergo hori beharrezkoa da DBHra pasatzean bertako ikasleei jarraipena emateko, SARE beraren barruan.

Egun, *Ikastetxe*ak bertan betidanik egon diren haur-hezkuntzako eta lehen mailako hezkuntzako etapak mantendurik ditu, itunduak direnak; eta, gainera, pertsona askoren eta, bereziki, arreba Fermina Perezen lanari eta kemenari esker, haurren etapa osorik eskaintzen da. Haurren hezkuntzako lehen zikloa sartu da: 0 urtetik 3 urterakoa.



Mater-Dei ikastetxea, Haurren gela 1ª

Ikastetxea barrutik benetan ezagutzen dutenek badakite ezen bere bizitzaren zati bat etorkizunerako pertsona hobeak egiteko ahaleginetan eman eta ematen duen profesional talde bat dagoela, erlijiotarrek, irakasleak ez direnek eta irakasleak direnek osatua.

Isileko lan isil horrek, batzuetan ikusi edo nabaritzen ez denak, Aiegiko, Lizarrako, Muniaingo, Deikaztelukо, Arronitzeko, Bilatortako, Oteizako, Donezteb-Deioko, Alloko, Galdeanoko, Artabiako, Etaiuko, Arbeitzako, Okoko, Etxabarriko eta abarretako neska eta mutil askorengana heltzen dirau.

Mater-Dei Ikastetxearen bista orokorra.Patioak eta haur-parkea

HAUTESKUNDE BEREZIAK

Hauteskundeen emaitzen balorazioa *00/4/4*

Haur eta Gazte Literaturaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, 2.urtez, Ikastolek Hans Christian Andersen idazle daniarrarra ren jaiotzaren 195. Urtemugaren inguruan HAUTESKUNDEAK prestatu dituzte .

Hauteskunde prozesu osoa, gaur, arratsaldeko 6retan bukatu da.

Partaidetzari dagokionez, hagitz altua izan dela baiezta daiteke:

6695 ikasle ,kategori ezberdinetan.

A Kategoria (Haur Hezkuntza): 1084

B Kategoria (L.H. 1., 2., 3.maila): 1770

C Kategoria (L.H. 4., 5., 6.maila): 2033

D Kategoria (D.B.H.): 1808

2000 urteko kanpaina honetako partaideak, Nafarroako, Bizkaiko eta Arabako ikastolak izan dira.

Ondorioei dagokionez :

- Lau kategorietan hautagai, euskarazko liburuak ziren.

- *Botua oso barreiatua izan da.* Hau da, neska-mutilek aukeratutako liburuak, egile ezberdin askotarikoak izan dira. Haur eta gazte literaturan idazle euskaldun gehienak, denak ez esatearren agertu dira kontaketeetan. Beraz, ikasleriak erakutsi dituen interesak anitzak direla esan daiteke. Hau gertatzen da bereziki B eta C kategorietan (eranskinetan).

Prozesuari dagokionez:

- Ikastola bakoitzatik jaso ditugun aktetan (ikasleek eginda) egiazta daitekeenez normaltasunez egin dira, anekdota polit batzuk aipatu direlarik. Guk dakigunez, ongi antolatua egon da Ikastola guztietan. Ikasle kopuruaren arabera ordutegiak paratu dira bozka zezaten, gehienetan goizeko partea aukeratu delarik.

- Jakin badakigu ikasleriaren jarrera ezin egokiagoa izan dela. ZORIONAK!

- Bozkatuenak izan diren liburuekin, etekin pedagogikoa atera dadin, jarduera bereziak prestatu dira:

Ikasleak protagonista sentitu dira eta irakasleriak, hauteskunde hauei etekin handia ateratzen ahal zaiela pentsatzen du. Batzuk ja atera diote, adibidez "Irakurketa Aste"tzatz izendatuz eta aste osoan irakurketaren inguruko jardueraz hornituz. Beste batzuk, ikasturte osoko irakurzaletasunaren lanaren ondoriotzatz landu dute.

Besterik gabe eta bereziki, interbentorei eta ikasleriari eskertuz

LIBURU HAUTATUENAK

Kategoriak	Egilea	Izenburua	Argitaletxea	Boto Kopurua
A	Ipuin Klasikoak	Txanogorritxo	Elkarlanean / Ttarttalo	76
A	Ipuin Klasikoak	Hiru Txerrikumeak	Elkar / Ttarttalo	44
A	Ipuin Klasikoak	Otsoa eta zazpi antxumeak	Ttarttalo	32
B	Ormazabal, Joxantonio	Saturna	Elkarlanean	26
B	Atxaga, Bernardo	Xolak badu lehoien berri	Erein	21
B	Alcantara, Ricardo	Hau beldurra	Edebe	21
B	Alcantara, Ricardo	Tomas eta lapitz magikoa	Edelvives	20
C	Press, Hans Jürgen	Eskubeltz taldearen abenturak	Elkarlanean	111
C	Atxaba, Bernardo	Bambulo	Erein	67
C	Stine, R.L.	Hotzikarak. Hildakoen etxea	Ediciones B	52
D	Mendiguren, Xabier	Irakasle alu bat	Elkarlanean	117
D	Mendiguren, Xabier	Obsexuen kluba	Elkarlanean	92
D	Garate, Gotzon	Goizuetako ezkongaiak	Elkarlanean	88

KATEGORIA A 3 - 6 urte bitartekoa
KATEGORIA B 6 - 9 urte bitartekoa
KATEGORIA C 9 - 12 urte bitartekoa
KATEGORIA D 12 - 16 urte bitartekoa

Irene López-Goñi

oroa

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN ALBISTEAK ETA JARDUERAK.

2000ko otsailean, Nafarroako Eskola Kontseiluak *NAFARROAKO HEZKUNTZA-SISTEMARI BURUZKO* bere lehenengo *TXOSTENA* burutu zuen: *1998-1999 IKASTURTEKOA*.

Foru Komunitateko hezkuntza-eremu osoa orokorrean errepasatzen saiatu gara, Administrazioari eta hezkuntza-erkidegoko arloei eskualdatuko zaizkien balorazioak eta iradokizunak ekarriz eta datuak bilduz. Hori da Nafarroako eskola Kontseiluaren funtsezko funtzio eta eskumenetako bat da, hura Sortzeari buruzko Legean eta haren Ibilera Araudian berariaz aipatuta dagoena.

Ikasturte hau bukatu baino lehen ikastegi guztiei aipatutako txostenaren ale bana bidaltzea espero dugu.

Haren *"Iradokizun"* nagusien laburpen bat bilduta dugu:

Arau-garapena:

HSAGOL legearen Nafarroako lege-garapena, araubide orokorreko irakaskuntzei begira, ia amaituta dago; 0-3 urteko adin-tartearen araupeketa falta da. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak berak adin-tarte horri buruzko txostenak eginik eta Nafarroako Parlamentuan aurkezturik ditu. Nafarroako Eskola Kontseilua, bere aldetik, horri buruzko txosten bat egiteko prozesuan dago. Uneotan, 2000n zehar garatzeko parlamentu- eta gobernu-erabakiak daude.

Hezkuntza Beharrizan Bereziak dituzten ikasleak

Azken urteetan zehar, gizarte osoan ikusi izan da hezkuntza-beharrizan bereak dituzten ikasleen gizarteraketarekiko eta hezkuntzaraketarekiko goranzko sentsibilizazioa.

Nafarroako Hezkuntza Administrazioak ahalegin handiak egin ditu eta egiten dihardu bai baliabide materialetan (instalazioetan eta ekipamenduetan) bai giza baliabideetan.

Horren ondorioz, horrelako pertsonak eskola-sistemara sartu dira integrazio- eta normalizazio-irizpideen pean. Integrazio-prozesu hori globalki ontzat har daiteke. Hala ere, orain ikasleen DBHko presentzia bezalako erronken aurrean gaude.

Azken urteetan zehar txikitu egin da hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleen ehunekoetako diferentzia, itundutako sare pribatuko eta sare publikoko ikastegi arrunten artekoa. Hala ere, ikus daitekeenez, sare publikoak hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleen ehuneko altuagoa hartzen dirau: guztirakoaren %68. Orekarik ez hori progresiboki zuzendu behar da gai batzuetako esku-harmen arau-emaileen eta ebaluazio- eta kontrol-mekanismoen hobekuntzaren bitartez. Gai horien artean ikasleen onarpena eta baliabideen erabilera zuzena dira. Orekarik ez hori zuzendu behar da, irakaslekuen Partaidetzari, Gobernuari eta Ebaluazioari buruzko 9/1995 Legean aipatuta dagoenarekin bat etorririk.

Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak hobeto eskolatzeko, irakasleen partaidetzari, ebaluazioari eta gobernuari buruzko legeak ezarririk du ezen Hezkuntza Administrazioek hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak herri fondoen bitartez eutsitako irakaslekuetan eskolatzea bermatuko dutela, edozein kasutan ikasleen banaketa orekatua mantenduz. Banaketa hori zonako irakaslekuetako unitateko ikasleria horretako proportzio berdina errespetatu beharko da. Hori eginen da, ikasleei hezkuntza-erantzun hobea bermatzeko beste irizpiderik hobe izan ezean.

Pertsona Helduen Hezkuntza eta hezkuntza-arreta konpentsatzaileak

Atal honetan aipatuta dagoen araupeketa helduen irakaskuntza arautuetara mugatuta dago. Kontseiluan bertan sortu ziren, arautegi hari buruzko eztabaidan, arautu gabearen araupeketari buruzko iritziak, titulua lortzera ez garamatzanaren araupeketari buruzko iritziak alegia.

Beharrezkoa da derrigorrezko bigarren irakaskuntzaren maila baliokidea ezartzearen gainean arreta berezia ematea, irakaskuntza horien zati bat ikastegi batzuetan eta gainerakoa beste batzuetan ematetik etor daitezkeen koordinazio-arazoengatik.

Komenigarria da pertsona heldu guztien hezkuntza-beharrizanak zehaztasunez aztertzea, eta, Estatuko Eskola Kontseiluak ere gomendatu duen bezala, Pertsona Helduen Hezkuntza araupetzen duen Lege bat egitea, eta gizarte bazterketarako arriskuan dauden pertsona helduentzat (etorkinentzat, langabetuentzat, gutxiengoentzat eta abarrentzat) programa espezifikoak zabaltzea.

Kultur Gutxiengoak

Kultur gutxiengoak oso era ezberdinean eskolatzen dira sare bietan: %675 herri sarean. Ehunekoa %83koa da ijitoen jatorriko ikasleen kasuan.

Orekarik ez horrek eta zona geografikoetako bilketak ikastegi batzuetan sorrarazten dituzte integrazioa errazten ez duten eta, gainera, haiek desagertzera eramaten dituen gatazkara bideratzen dituzten egoerak. Beharrezkoa da horrelako arazoetarako konponbideak aztertzea eta gutxiengoak hartzen dituzten ikastegien hezkuntza-lana garatzeko neurri posible guztiak hartzea.

Inmigraziotik datorren atzerritar ikasleriaren gehikuntzari begira, premiazkoa da ikastegietara heltzen ari diren ikasleak behar bezala eta osoko eran hartzeko aurrikuspenak egitea.

Gutxiengoon hezkuntza-sistemako presentziak curriculumen presentzia biziagotzea eskatzen du, eta, eskola-praktikan, kultura aniztasunaren joritasunarekin, gutxiengoen eskubideak errespetatzearekin eta abarrekin lotuta dauden alderdiei buruzko zeharkako gaiak.

Bekak. Nafarroako Gobernuaren Deialdi Orokorra

Kapitulu honen barruan, testuliburuak edo eskola-materiala erosteko laguntzetarako deialdiaren hutsunea nabaritu dugu.

Nafarroako Eskola Kontseiluak uste du ezen beketarako aurrekontuan jarritako kopuruak gehiagotu behar direla eta, halaber, haiek atzitzeko errenta-mugak igo behar direla.

Nafarroako 2000ko Aurrekontuei buruzko Foru Legean, Hezkuntza eta Kultura Sailak testuliburuak edo eskola-materiala erosteko laguntzetarako 150 milioi ditu.

Ikastegi publikoetako irakasleak

Txostena dagokien urteetan zehar, ia osorik ezarri da HSAGOL delakoa, eta, horrekin batera, beharrezkoa izan da irakasleak berriro banatzeko prozesu zail batzuei ekitea. Funtsean, prozesu horiek Maisu Kidegoa, Bigarren mailako Irakasle Kidegoa eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa ukiturik dituztenak izan dira, zailtasun handiagoa ekarri dutenak. Izan ere, kontutan hartu behar da ezen HSAGOL delakoak zekartzan aldaketei matrikulazio kopuruko beherapen progresiboa batu zaiela, txosten honetako beharrezko tauletan ikusi den bezala.

Azpimarratu behar denez, prozesu horiek guztiak Hezkuntza Administrazioaren eta erakunde sindikalen negoziaziorako ahalegin handien bitartez burutu dira. Ahalegin horien ondorioz akordioak eta itunak etorri dira, Hezkuntzako Arlo Mahaiaren zatirik handienak sinatuak. Akordiook ekarri dituzte, derrigorrezko lekualdaketei eta lanpostuen ezabaketari dagokienean traumatikoak ez diren eta irakasleak berriro banatzekoak diren prozesuak ezezik, kalitate-adierazkari batzuetako hobekuntza nabarmenak. Adierazkari horiek honakook dira: ratioak, tutoretzarako orduak, zuzendaritzako taldeak, koordinazio-lanak, dibertsitaterako arretako neurriak eta abar.

Lan-osasunari buruzko atalari begira eta, zehazkiago, "Baxa-prebalentzia" izenburuko koadroari dagokionez, apur bat agerikoa da uztailean eta abuztuan gertatzen den erorketa, hau da, oporraldian gertatzen dena. Datu hori kontutan hartu eta aztertu behar dute Departamentuko Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuek eta unibertsitatekoak ez diren irakasleen Segurtasun eta Osasun Batzordeak.

Era berean, lan-osasunari dagokionez, beharrezkoa da gai batzuei erabakitasunez ekitea. Gai horien artean honakook daude: gaixotasun zehatz batzuen izaera profesionaleko adierazpena, eta lan-osasuneko eskuordeek ikastegietako lan-baldintzak benetan kontrolatzea.

Itundutako ikastegietako irakasleak

Eskola Kontseiluak agerian jarri gura duenez, 9/1995 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorririk, ikasketetako buruak ikastegien plantilan sartzen aurrera jarraitu behar da, zuzendaritza-funtziorako laguntza bezala. Gauza bera egin behar da departamentu-buruekin, zertarako-eta itundutako ikastegietan funtsezko alderdi pedagogikoak garatzen ahal izateko.

Eskola-kontseilu honek uste du ezen beharrezkoa dela itundutako irakaskuntza pribatuaren Mahaiaren eremuaren barruan elkarrizketan eta negoziazioan aurrerapen esanguratsuak gertatzea, zertarako-eta arloari eta bertako langileei egonkortasuna emateko lagungarria den foru eremuko Erabaki bat laster iristeko.

Hezkuntza Administrazioak Itundutako Ikastegietako langileen kontratazioen gaineko kontrola bermatu behar du, zertarako-eta dauden arauetan ezarritakoak zehatz-mehatz betetzeko.

Beste alde batetik, Nafarroako Eskola Kontseiluak Administrazioari neurri politikoekin eta aurrekontu-neurriekin jarraitzea eskatu dio, itundutako ikastegietako irakasleen irakas-funtzionarioekiko ordansari-parekotasuna gerta dadin.

Irakasleen prestakuntza.

Prestakuntzak ikastegien barneko ebaluaziorako prozesuak eta, horrekin batera, ikastegiak hobetzeko planak garatzea ahalbidetzen duten ezagupenak ematea izan behar du funtsezko ildoetako bat.

Eskola-kontseilu honek gomendatu gura duenez, irakasleen prestakuntza etengaberako planetan bereziki azpimarratu behar da irakaskuntza-ikaskuntzarako prozesua ebaluatzeko kultura baten garapena. Halaber, hark prestakuntzarako programa eta egun indarrean dagoen haren egitura ebaluatzea gomendatu gura du.

Eskola-kontseilu honen ustez, funtsezkoa da tutoretza-lanari tratamendu berezia ematea. Horregatik, hark Administrazioari aholkatu gura dio eremu honetan irakasleen prestakuntza berezia sartzea.

Nafarroako Eskola Kontseiluak Administrazioari zentroetan prestakuntza-proiektuak indartzea gomendatu gura dio, irakasleei haien hezkuntza-praktikari buruzko hausnarketa zuzenekoagoa ahalbidetzen dien prestakuntza-jarduera bezala. Gure aburuz, zentroetako prestakuntzak dagokion ordu-kreditua eraman behar du.

Banakako laguntza eta ikasketa edo azterketengatiko lizentziei dagokienez, kontseilu honek uste du ezen zenbatekoa eta emaitzen kontrola areagotu behar direla eta beti hezkuntza-sistemaren beharrizanak gogoan izan behar izaten direla.

Eskola-zentroak

Arlo publikoan Ikastegi integratu eta osoak sortzeko aukera aztertzea proposatu gura dugu; Haurren Hezkuntzatik Bigarren mailako Hezkuntzarainoko Ikastegiez ari gara, zuzendaritza bakarra eta Eskola Kontseilu bakarra dutenez. Gure ustez, hobe da landa-inguruneko herri zehatz batzuetan eta nahikoa den lekua duen hiri-ikastegiren batean hastea.

Guk uste dugunez, Ikastegien goranzko eta beharrezko autonomia Hezkuntza Proiektuetan gauzatu behar da, eta, arrazoizkoa kontutan harturik, baliabideak antolatzeko, barneko ibilerarako, lansaio motarako eta abarretarako halako askatasun bat izan behar du. Era berean, beharrezkoa da barneko eta kanpoko ebaluazioa eta kontrola.

Bereziki garrantzitsua da ikasleen onarpenei buruzko gaia. Familiek beren seme-alabentzako Ikastegi mota aukeratzeko duten eskubideak ondore txarrak ditu Ikastegi batzuen bizitzan. Izan ere, gizartean eta kulturalki baztertuta dauden inguruetatik datozen ikasleen bilketak gertatzen dira, egia esan integratzeko eta hobetzeko hezkuntza-eskaintza eragotzi edo oztopatzen dutenak.

Politika handizalearen bitartez egoera biak uztartzea proposatu gura dugu. Politika hori ikastegi edo/eta unitate bakoitzean mota horretako ikasleen kopurua mugatzekoa izan daiteke, ikastegiok ekonomi eta giza bitarteko handiagoz, ratio txikiagoz, gizarte ekipoz eta kaleko laguntza-ekipoz eta abarrez hornitzekoa.

Eskola Kontseiluak, irakasleei zuzendaritza-karguak betetzea urriki interesatzen zaiela ikusirik, bai Ikastegi Publikoetako bai Itunduetako Eskola Zuzendaritzaren errealitateari buruzko eztabaida hastea eta horri buruzko txostena ematea proposatu gura du, eta proposamen berrietara heltzen saiatzea. Hori mahai gainean urte

asko daramatzan afera da, beste ezein herritan ongi konpondurik ez dagoena, eredu bat proposatu gura denean zalantza handiak ekartzen dituena baina, guztiarekin ere, ezinezko bihurtu eta aztertu gabe utzi behar ez dena: proposamen eraberritzaileen bitartez arriskatu beharra daukagu.

Koordinazio-organoei begira, Eskola Kontseiluak urriki eraginkortzat jo du Departamentuko burutzen urteroko izendapena edo txandakako izendapena. Departamentuko Burutzak izaera egonkorragoa eta bi/hiru ikasmaila izan beharko lituzke, eta behin-betiko destinoa duten Departamentuetako kideek burutua izateko aukera.

Ontzat hartu dugu Tutoretza Koordinazio eta Orientazio sail berrien agerpena, eta uste dugu ezen beharrezkoa dela ikastegi txikietan jarduera-eremu globalen arabera departamentuak sortzeko prozesuan sakontzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastegietan, itundutako ikastegietan eta abarretan bakarrik.

Ikasleen Gurasoen Elkarteak

Nafarroako Gobernuak Federazioak beren aurrekontuetatik kopuru handia kitatzea eta jasotzen duten laguntzen edo beren aurrekontuaren zatirik handiena jardueretarako ematea ahalbidetzen dien lokal batez hornitzea nahi dugu, edo hark azpiegitura-gastuen eta jarduera-gastuen kontzeptuak bereiz ekartzea. Ildo beretik, uste dugu ezen familientzako prestakuntzarako programak kontutan hartu behar direla eta partaidetza errazten duten neurriak hartu behar direla. Era berean, lan-bizitzak berenganatzen dituztenen ordezkagarriak diren lanekin bateratzen ahal dena izan behar du.

· Ikastegi baten eskolatik kanpoko jarduera guztiek haren Hezkuntza Proiektuarekin koherenteak izan behar dute eta Eskola Kontseiluaren babesaren eta kontrolaren eta ebaluazioaren pean egon.

· Ikastegietan, ez da beste erakunde batzuek baimendu duten baina baldintzak finkatzen dituen Eskola Kontseiluak onetsi ez duen eskolatik aparteko jarduerarik onartu behar.

Euskara Nafarroako hezkuntza-sisteman.

Bi hizkuntzazko ereduak gehitu eta onartu dira. Horrek eskaintza hobetzeko proposamenera garamatza. Beraz, horri gizarte eskariak adierazitako garrantzia eta kalitatea eman behar diogu. Ereduen zehaztapena eguneratu behar da. Haiek hezkuntza-sistemaren egitura berrira egokitu behar dira. Horren aurretik, arretaz ebaluatu beharko lirateke ikasleek eredu ezberdinen bitartez iristen dituzten hizkuntz gaitasunak.

"B" eredua, Nafarroako antolamenduan, lehen mailan gaztelaniaz irakasgai bakarra eta bigarren mailan irakasgai bat edo bi duen murgilketa-ereduaren aldaera bat da. Lehen aipatutako ebaluazioaren haritik, beste erkidego batzuetan beste definizio batzuk dituen eredu horretako nahasteak gure buruari indarrean dagoen formulazioa zuzenena den galdetzera garamatza.

G ereduan eta A ereduan sartuta dauden ikasleak elkarrekin bizi diren eskola-unitateetan ikusten izan diren disfuntzioak aztertu eta konpontzea proposatu gura dugu. Irakaskuntzotan dagoen testuen, material didaktikoen, adibideztapenen eta abarren urritasuna konpontzeko esku hartzea gomendatu gura dugu.

Hezkuntza-sistemako euskararen presentziaren normalizaziorako prozesua D eredua Nafarroa osoko ikastegietan egotea ahalbidetzen duen lege-arautegi batekin osatu behar da. Izan ere, uneotan ikastegi pribatuek Nafarroako zona zabaletan bakarrik eskaintzen ahal dute eredu hori.

Azken urteetan zehar ikusi izan denez, Hezkuntza Administrazioak Eskola Mapa antolatu du, nola-eta, herri zehatz batzuetan, ikastegi bakoitzari hizkuntz eredu bat esleituz. Banaketa horrek izan ditzakeen gizarte ondorioak aztertu behar dira eta ikastegi elebidunak egotea bultzatu behar da. Logikoa denez, G, A eta D ereduen hizkuntz helburuak lortzea bermatzen duten barneko baldintzak eta giza baliabideen eta baliabide materialen zuzkidurako baldintzak bermatu behar dira.

Eskola-kontseilu honek euskarazko irakaskuntza eman beharra, prestatzeko epealdia bukatu ondoren, 10 urteetara arte zabaltzea proposatu gura du, askapen osoz birziklatzen ari diren irakasleen ahaleginak aprobetxatzeko.

Hezkuntza Administrazioa

Eskola-garraioari dagokionez, Eskola Kontseiluak uste du ezen komenigarria dela zerbitzu horretarako eskubidea derrigorrezkoaren ostekoa den irakaskuntzako ikasleengana zabaltzea eta zerbitzu hori beharrezko zaintzaileez hornitzea. Hori guztia toki erakundeekiko, ikastegiekiko eta erabiltzaileekiko lankidetzan egin behar da, zonako ikastegientzako ordu-koordinazioa kontutan hartuz.

Hezkuntza-aurrekontuak

Derrigorrezko irakaskuntzaren doakotasunaren barruan testuliburuak sartu behar dira, egun ezinbestekoak diren eta derrigorrez eskatzen diren materialak direnak, araupeketa eta kontrol egokiarekin baina.

2000ko martxoan bukatu eta onetsi dugu 0-3 URTEKO ZIKLOARI BURUZKO EKIMEN BEREZIKO IRIZPEN BAT, Nafarroako Hezkuntza Erkidegoan eta bide sozialetan eta politikoetan gaurkoa izaten zenbait hilabete daramatzan gaia.

0 - 3 Zikloari buruzko Irizpenaz

Fernando Méndez Velayos*

0-3 zikloaren araupeketari buruzko irizpenaren txostengileen lanaren garapena ez zen hasiera batean aurrikusi bezain handizalea izan. Izan ere, borroka posibleak saihestu eta bozketetan galdutako erabakien aurrean demokratikoki amore eman nahirik, erradikalenak ez moderatuenak ase ez zituen formula bat sortzen joan zen, azken bozketaren arabera Nafarroako Eskola Kontseiluaren zatirik handienak onar zezakeen testura hurbilduz.

Elkarren ondorengo bileretan zehar, lehenik banaka baloratuz eta, gero, taldean baloratuz joan ziren eskuetan geneuzkan edo batzorde txostengilearengana heldu ziren informazioak. Norabide ezberdinak agertzen zituzten jarrera pedagogikoak aztertu ziren eta lau urtetik beherako haurren Europako egoera miatu zen. Jakina zenez, aztertu, irakurri, atzitu eta egiaztatu gabe utzi ziren oso interesgarriak ziren baina arrazoi askorengatik gure eskuetara heldu ez ziren eskaintza pedagogiko eta esperientzia asko. Ez genuen informaziorik

edo, azkenean, zoritxarrez aukera batzuk ahantzi genituen, oso baliozkoak zirenak, halaber.

Batzorde txostengileko kideen interesak askotarikoak ziren, eta interes-gune ezberdinekikoak. Hori zela eta, eztabaida interesgarria izan zen lan-jardunaldietan. Present egon ziren ikasleen gurasoen ordezkariak ziren bi erakundeak: Herrikoa, irakaskuntza publikokoa; eta Concapa, irakaskuntza pribatukoa. Bi sindikatu egon ziren, CC.OO. eta UGT: bata irakaskuntza publikoaren ordezkaria zen; eta bestea, irakaskuntza pribatuarena. Gainera, patronalaren aldetik ANEGen ordezkaria egon zen; Administrazioaren aldetik, Manuel Castillo jauna; eta unibertsitate-mundutik, Luis Sarriés jaun lokabea.

Talde heterogeneo hori apurka-apurka irizpena garatuz joan zen, interesgarritzakoak ziren eta Nafarroako Gobernuak ezagutu behar zituen alderdiak bildu nahirik. Irizpenak indarrean dagoen legera doitzeko eskaera bildurik du, lehenik haurren eskubideak defendatzekoa eta, gero, legezkotasuna. Gainera, beste alde batetik, araupeketarako nahikoa den legeria dago, Estatuak egindako arautegitik NAO aldizkarian argitaratutako Foru Arauraínokoa. Era berean, Comptos Ganbarak gai horri buruz emandako txostena, eta, eskatu denez, haurren hezkuntzako lehen zikloa eraman behar duen hezkuntzatik kanpoko erakunderen bat sortuz gero, bertako langileen segurtasuna, neurriak, lanbide gaitasuna eta alderdi materialak bermatu behar dira eta haurtxoen eskubideak defendatu.

Txostenean agerian jarri zen gurasoek haiek lehenengo urteetan hezteko eskubidea erabiltzearren zuten zailtasuna. Legegileak abian jarri beharko zituen bitarteko batzuk falta ziren. Eta berauek gurasoen, tutoreen edo arduradunen lan-arduraldia ahalbidetzea beraiek araupetzeko eta bizkortzeko arrazoi ez izatea zuten helburu. Eta, horren parean, laguntza- eta hezkuntza-izaera defendatu zen batezbesteko zailean.

Tirabirak benetakoak izan ziren. Haren kideetako batek bertan parte hartzeari uztea erabaki zuen, egiten zihoazen testua haren erakundeak txostena bildu behar zuenari buruz onar zitzakeen gutxienekoetatik gehiegi urruntzeagatik. Ez zen ezer larririk gertatu eta kiroltasunez deitoratu zen joateko erabakia hartzea eta haren ukoa eta hura joatea onartzea.

Azkenean, azpimarratu zenez, Gobernuak lehenbailehen abiaratu behar zuen haurren hezkuntzako lehen zikloa edo 0-3 tartea. Izan ere, hori eskatzen zuen gizarteko arlo handi batek, zeinek eskaintza irekia izan zedin eta beraren seme-alabak berak aukeratzen zituen ikastegira joan ahal izan zitezen eta ikastegi horrek nahikoa plaza izan zezan nahi baitzuen.

Elaborazioa atzeratu zen hainbat karirengatik: Gabonetako oporrengatik, elurraren astearengatik... Aurrikusitakoaz bestera, behar baino gehixeago berandutu zen. Pozik ez egotearen zergati bat, txosten eta lan guztietan ohikoa dena, lanen ibilera prentsara "filtratzea" da. Horrek distortsionatu eta, batzuetan, presioak sortzen ditu. Ideia txostena egiten ari direnak baldintzatzea da... Kasu honetan, egia esan, aldarte txarra ekarri zuen, baina ez da txosten honetan bakarrik gertatu. Jaun-andreen arteko ituna burutu ohi da, zertarako-eta lana bukatuta egon arte zuhurki jokatzeko, baina gauza txar hori ezabatzea zaila da, eta, jakina, kasu honetan bakarrik ez, baita pisu eta garrantzi handiagoko beste batzuetan ere. Gure kasuan, prentsak lehenengo zirriborro hasi berriaren berri jakin eta argitaratu zuen, berau informazio-material interesgarria baitzen. Argitaratze horrek ez zuen ondorerik izan gure lanen ibileran, baina laster lausotzen zen mesfidantza-sentsazioa sentitu genuen.

Laburbilduz, zirriborroa Nafarroako Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkurari edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiari aurkeztu zitzaion. Bilkura hori 2000ko martxoaren 21ean egin zen eta zirriborroak gehiengoaren laguntza jaso zuen. Hala ere, kontrako bost boto eta bi boto zuri egon ziren.

Espero ukan dezagun horrek ondorea ekartzea eta Nafarroako Gobernuak haurren hezkuntzako lehen zikloa abian jartzea aurreratu nahi izatea eta legeak berak ezarritako muga-data baino lehen haren ibilera aurreratzeko beharrezko araupeketa burutzea. Kideok Nafarroako Eskola Kontseiluaren garapenerako laguntza eman dugulakoan gaude eta, talde-lana eskatzen digun beste "abentura" baten barruan egon arte, "lanetik aske" astia hartzea espero dugu.

2000ko lehenengo seihileko honetan lehenespenezko lan-eremua gure eskumeneko eremuaren barruan oinarrizkotzat jo ditugun bi jardueraren antolaketak beteta egon da. Bi jarduera horiek honakook dira:

- Uneotan izarra den eta "Kulturarteko eskola: Nafarroako egoera eta proposamenak" izenburua duen gaiari buruz *Nafarroako Ikastegietako Eskola Kontseiluekiko II. Jardunaldia* egitea, apirilaren 8an.
- "Dibertsitaterako arreta. Kulturarteko eskola" gaiaren inguruan *Autonomia Erkidegoetako Eskola Kontseiluen eta Estatuko Eskola Kontseiluaren XI. Nazio-topaguneak* egitea, Iruñean, 2000ko maiatzaren 12an.

Era berean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak bidalitako bi gairi buruzko manuzko irizpena egiten gabiltza. Gai horiek honakook dira:

- *HSAGOL delakoaren araberako Batxilergo berriaren gaueko ikasketen araupeketa.*
- *2000-2001 ikasturterako eskola-egutegia.*

Era berean, Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko 1999-2000 ikasturteko urteko txostena (bigarrena) egiteko informazioa biltzeko lana hasi dugu. Txosten hori abenduaren 30a baino lehen amaitu beharko da.

Azkenik, poztu egiten gaitu Nafarroako Eskola Kontseiluko *ikasleen ordezkariak* izendatu direla jakinarazteak. Ordezkari horiek honakook dira:

- Maria Alfonso Imizcoz andrea, Iruñeko "Cardenal Larraona" ikastetxekoa.
- Javier Marcos Álvarez jauna, Iruñeko "Cardenal Larraona" ikastetxekoa.

gunko

NAFARROAKO IKASTEGIETAKO ESKOLA KONTSEILUEN NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREKIKO II. JARDUNALDIA

2000ko apirilaren 8an, Iruñeko Planetarium-en, urteko gure bigarren lan-jardunaldia egin eta ospatu genuen Ikastegietako Eskola Kontseiluetako kideekin. 188 pertsonak hartu zuten parte, 71 Ikastegiren ordezkariek.

Bilduak gintuen gaia *"Kulturarteko Eskola: Egoera eta Proposamenak"* zen.

Jardunaldiaren hasieran, bertaratu guztiei karpeta bana eman zitzaien. Bertan informazio-dosierra zegoen, orduko gure gaiari buruzkoa. Dosier horretan honakook ageri ziren: bibliografi erreferentzia eguneratua eta aldizkari espezializatuetan argitaratutako gaiari buruzko zenbait artikuluren kopia.

Aurrikusita zegoen bezala, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura kontseilaria zen Jesús Laguna Peña jaun txit argiak hasi zuen Jardunaldia. Jaun horren ostean, harekin jarraitu zuen José Antonio Jordan jaunak (txostengile nagusiak), Bartzelonako Unibertsitate Autonomiaduneko irakasleak. Beronek Gure eskolarentzat zein kulturarteko hezkuntza? Gaia garatu zuen. Gero, mahainguru animatua eta hitzaldiak etorri ziren.

Goizaren bigarren zatian, gure Komunitatean kulturarteko errealitate hori bizi duten Nafarroako bi Hezkuntza Zentroren azalpenak gertatu ziren. Tuterako "Elvira España" Haurrentzako eta Lehen Mailakoentzako Ikastetxe Publikoa ordezkatuz, bertako zuzendaria zen José María Giganto jaunak hitz egin zuen; eta Iruñeko "La Compasión" Haurrentzako, Lehen Mailakoentzako eta Bigarren Mailakoentzako Ikastetxe Itundua ordezkatuz, bertako zuzendaria zen María Mercedes Ginel andreak.

Hitzaldien edukiak eta hitzaldietan egindako iradokizunek zalantzarik gabeko interesa dutela eta, Nafarroako Eskola Kontseiluak haien eduki osoa argitaratuko du, parte-hartzaile guztien artean banatuko dena.

Nafarroako Escola Konseilua ikastetxetako Eskola Kontseiluekin biltzeko II jardunaldia

5. zk.
2000

Ide

Editoriala

Aldizkari Berri-Emailea
Nafarroako Eskola Kontseilua

HEZKUNTZA-SISTEMAREN KALITATEA ETA EBALUAZIOA

Kalitate eta ebaluazio hitzek azken garaietan erabilera-hedapen bikaina izan dute eta, hori gertatzen denean, pentsatu behar da ezen erabilera horrek hitzaldian "errentagarritasun" handia sorrarazten duela eta bakoitzak horri gehien komeni zaion esangura emateko joera duela.

Nire ustez, beharrezkoa da, bada, oso nobleak diren hitzon esanguran desnaturalizaziorik gerta ez dadin adi egotea. Hortaz, kontzeptualizazio-ahaleginak egin behar ditugu haiek erabiltzen ditugunean zertaz ari garen jakiteko.

Egungo hezkuntza-sistemaren eremuan, kalitatea eta ebaluazioan HSAGOL delakoaren IV. titulura bilduta daude. Berau irakaskuntzaren kalitateaz ari da. Ebaluazioa "irakaskuntzaren kalitatea eta hobekuntza ahalbidetzen dituen faktore multzoan" sartuta ageri da (55. artikulua).

Ibarzabal jaunarekin ados nago. Izan ere, kalitateaz mintzatzea baino hobea da hobekuntzaz hitz egitea. Haren iritzia buletin honetan (3. zk.) ageri da. Harekin bat nator. Egin-eginean, kalitatea produktu bati dagokiola dirudi eta, ildo horretatik, uler daiteke ezen kalitate horren lorpena hobetu beharreko gauzakia kanpoko estandar batzuetara egokituz lor daitekeen hobekuntza-helburua dela eta, kalitatea lortu ostean, gauzaki horrentzako "kalitate-zigilua" lortua dela eta, horren ondorioz, helburua betea dela.

Hobekuntza, aldiz, prozesu bati dagokio, eta, hortaz, etengabe gainditu beharreko lan bati. Logikoa denez, horrek helburu puntual edo partzialak ditu. Baina, funtsean, beti egon behar izaten du zabalik eta heziketa-ebaluazioan bermatuta. Ez da "kalitate-ziurtapena" izan behar azken erreferente bezala, baizik eta ikastegi bakoitzak bere erakunde-plangintzari buruzko agirietan zehaztu behar duen eredua edo erreferentzia egokia baizik.

Ari naizen prozesu horrek plangintza, hausnarketa eta balorazioa, erabakiak hartzea eta metaebaluazioa (prozesuarena berarena) etengabe elikatzen doan informazioa behar du. Ebaluazioa da informazio hori eman behar duena, eta informazio hori arauz, zorroztasunez eta era objektiboan eman behar du.

HSAGOL eta LOPEGCE legeek hezkuntza-sistemaren barruan zenbait ebaluazio-eremu ezarri dituzte, baina hezkuntza-sistemaren ebaluazio orokorra ukitzen duena kontutan hartzea interesatzen zait, eta are interesatzenago zait ikastegien ebaluazioari dagokiona ardatz izatea.

Hezkuntza-sistemaren ebaluazio orokorrari begira, aipatutako legeek hori Kalitaterako eta Ebaluaziorako Nazio Erakundeari (INCE delakoari) eskatu diote.

Ebaluazio horrek, beraren izenak adierazten duen bezala, ez ditu helburu bezala hezkuntza-zentroak, eta, hortaz, gelen errealitatetik urrun samar dagoena irudi dezake; hala ere, nire ustez, erabaki batzuk hartzeko kanpoko erreferente bezala oso baliozkoa izan daiteke-en informazioa dakar, bidezko eran interpretatzen bada eta behar bezala frogatzen bada.

Gelaren errealitatetik hurbilago dago ikastegien ebaluazioa, berau egiteaz arduratzen diren agenteengatik bakarrik bada ere.

LOPEGCE legeak, eremu honetan, kanpoko ebaluazioa eta barruko ebaluazioa bereizi ditu eta, oso irizpide onez, uste du ezen biok elkarren osagarriak direla, hau da, kanpoko ebaluazioak, hezkuntza-ikuskapenak eginak, bere ondorioetarako barruko ebaluazioko prozesua kontutan hartu beharko duela eta, alderantziz, prozesu horrek, ikuskapenaren aholkularitza izanen duen ikastegiko organok burutuko dutenak, kanpoko ebaluazioaren emaitzak kontutan hartu beharko dituela.

Horrek guztiak, horrela esanda, nahaspila txikia eman dezake eta bere benetako zentzua eta beharrezko koherentzia hartu behar du, baldin eta Hezkuntza Administrazioak pieza ezberdinak egokitzen diren marko bat eman behar duela eta geletan egunero garatzen den irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuaren hobekuntzaren bitartez sistemaren hobekuntza dakarten ebaluazio-prozesuok bultzatu behar dituela pentsatzen badugu.

eskolara